

# **Pentsamendu kritikoa irakasgai. Elkarrizketa argudiatu kooperatiboa irakas-gai**

*Imanol Alvarez Varela*

Filosofia irakaslea Bigarren Hezkuntzan eta Jakinmin elkarteko kidea

## **Kontestualizazioa: irakasgaia eta kritikaren lur hartzea**

Kritika anitz jaso ditu curriculum berrian DBH 2 eta 3. mailerako planteatuta dagoen *Pentsamendu autonomo eta kritikoaren garapena* izaneko hautazko ikasgaiak, eta horri buruz idatzi nahi dut gaurkoan. Ezer esan aurretik, Filosofiaren eremuko irakasgaien curriculumean beste kide batzuekin elkarlanean ibili nintzela argi utzi nahi dut, konplexuak diren prozesuetan gertatu ohi den bezala, emaitza idealetatik urrun, egingarria denaren artean, gure ustez onena dena bilatzen. Ez dut hori momentu batean ere zalantzapean sentitu kritika horietan, eta elkarrizketa publikorako gonbita beharrezkoa eta interesgarria iruditu zait: horretarako gara filosofoak. Gustatuko litzaidake, ordea, Hezigunean eskegita dagoen curriculumari behar den lekua ematea elkarrizketa honetan, bertan egiten den proposamena kontuan hartzea funtsezkoa baita gaia sustraitzeko. Horregatik, artikulua honetan zehar, parentesi barruan eta komatxo artean jarriko ditut dokumentu horren zatiak, komentatzen ari naizenarekin bat datorrenean. Ideia, lelo edo izen moli bat baino zerbait gehiago dago proposamen horretan, edo hori zen behizat helburua, eta azaltzen saiatuko naiz. Argi utzi nahi dut, orobat, irakasgai horren presentziak ez duela esan nahi pentsamendu kritikoa eta autonomia arlo guztietan jorratu behar den kontua ez denik; baina badakigu guztien lana inoren ardura bilakatzen dela sarritan. Denbora eta espazio propio baten aldarrikapena, beraz, ez da horren lanketa eta zeharkakotasuna alde batera uzteko dei bat, hauek indartzekoa baizik. Esan dezagun, halaber, planteamendu zabalago batean txertatzen den ikasgaia dela hizpide dugun hori, pentsamendu filosofikoa garatu nahi duten ikasleei aukera ematen dien ibilbide baten zati bat («Irakasgai hau pentsamendu autonomia eta kritikoa jorratzeko lanean txertatzen da. Lan hori hezkuntza-ibilbide osoan zehar planteatu da: Balio etiko-zibikoak (Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta Bigarren Hezkuntzako lehen mailan), eta DBHko laugarren mailan eta Batxilergoan, filosofia ardatz duten irakasgaietan»).

Hasteko, esan nahiko nuke irakurritako kritiketan topatu ditudan ideia askorekin bat natorrela, baita testu horietan agertzen diren ardura eta beldurrekin ere. Egia da, orobat, ez natorrela bat ideietako batzuekin; baina, parte handi batean, planteamenduaren gaineko gaizki-ulertu bat dagoela uste dut. Onartzen dut eztabaidaren zati handi bat hartzen duen gaizki-ulertu honen jatorria guk egindako lanean egon daitekeela, modu kritikoa eta autonomia garatzeko planteamendu hori aurrera eramateko proposamenean, 'nola' horretan, ezin izan garelako guk nahiko genukeen bezain argiak izan (ikasgaien curriculumek ez dute iradokizun orokorretatik harago doazen pautak metodologikoak onartzen). Hala ere, Filosofia irakasleok pentsamendu kritikoa sustatu ahal eta behar dugula esatea, eta pentsamendu kritikoa bera irakasgai baten barruan sartu ezin dela esatea aldi berean, ez da Schrödingerren katuarena, baina antz handia du. Izan daiteke kontzeptuei jartzen diegun izenen eztabaida

hutsa izatea hau, 'irakatsi' aditzak doktrinamendutik sustapenera doan eremu zabala hartzen baitu. Baina pentsamendu autonomo eta kritikoa susta daitekeela uste badugu denok, hori nola egin ahal eta behar denaren gaineko eztabaida bat da esku artean duguna. Hor, agian, adostasun eza azalekotik harago doa. Guk argi dugu zein den gure apustua («Oinarrizko jakintzetara jarduera gogoetatsu baten bidez hurbildu behar da beti. Horretarako, etengabe eta modu sistematizatuan erabili behar da elkarrizketa kooperatiboa, edo pentsamendu autonomoa eta kritikoa garatzen lagundu dezaketen beste tresna batzuk»).

### **Elkarrizketarako gonbitari elkarrizketan oinarritutako proposamen batekin erantzuten**

Arrazoiak ematearen arrazoia eztabaidatzeko aukera luzatzea zela idatzi du bere artikuluetakoa batean orain dela gutxi ikasgai hori kritikatzeko duen Tere Maldonadok, niretzat laguna eta pentsalari mirestua denak, beste alde batetik. Eztabaida beharrezkoa eta aberasgarria da beti, baina Habermas aipatzen duela aprobeztatzuz, arrazoiaren hartu-emanek ohitura, espazio eta trebezia eskatzen dutela gogoratu nahiko nuke, eta hezkuntzan faltan botatzen ditugun elementu horiei lekua emateko helburuarekin diseinatuta dagoela irakasgai hori. Inork ez du planteatu pentsamendu kritikoa Europako hiriburuak edo logaritmo nepertarren moduan transmititu behar direnik, eta ados gaude jarrera bat dekalogo bihurtzea astakeria kontraesankorra litzatekeela, are gehiago, berak ondo dioen bezala, pentsamendu kritikoa kasuan. Baina modu kritiko eta autonomoan pentsatzea susta daitekeen zerbait bada, irakasgai bihurtu daiteke, eta irakasgai ere. Gu gara, agian, itxia eta zehatza dena soilik ulertzen baldin badugu irakasgai batean egoteko, gure teilatuari harriak botatzen ari garenak. Uste dut, dokumentuan hurbilketa gogoetatsu baten aldeko apustua argia dela, elkarrizketa argudiatu kooperatiboaren eskutik, Haur filosofiaren eskutik esatea bezalako dena, azken finean. Bertan agertzen diren konpetentzia eta oinarrizko jakintzen azterketa bat egiten badugu, argi dago nerabeentzat hurbilekoak diren gaien (adiskidetasuna, maitasuna, familia, drogak...) edo XXI. mendeko gizarteak dituen erronken (kontsumismoa, feminismoa, arazo ekosoziala, teknologia eta sareak...) gaineko hausnarketa sakona sustatzea dela helburua, filosofiaren oinarrizko gaiekin lotuz, elkarrizketa argudiatu kooperatiboa erabilita metodologia gisa. Platonen kobazuloa sare sozialetan dago, Rousseauren borondate orokorra kuadrillako erabakietan eta María Zambranoren arrazoi poetikoa gure maitasun istorioetan; baina, errealitateki abiatu ezean, batzuek ez dute inoiz filosofia ezagutuko eta beste gehienak bidetik galduko zaizkigu, beti bezala. Autoreen pentsamenduaz hitz egiteak, ikasleen errealitateki gaurkotetasuna duen kontestu batetik ez bada, zenbat ikasle hurbildu ditu filosofiara? Batxilergoan egin daitekeen zerbait bada ere, ez al du filosofia ezer eskaintzeko adin horretara arte? Nik behintzat, eta Jakinmin elkartearen sei urtetik aurrera eta adin guztietarako filosofia tailerrak egiten ditugunok, urteak daramatzagu ikusten hori ez dela horrela.

Ez da hau horretarako artikulua, baina, puntu honetan, Haur filosofiaren lan egiteko modua zein den laburki azaldu behar dudala deritzot, hauxe baita curriculumean behin eta berriz iradokitzen den planteamendu metodologikoa («Ezinbestekoa da ikasleak hezkuntzan: beren burua eta gauzak zalantzan jartzera, beren ikuspuntuen alternatibak ikertzera eta baloratzea, arrazoitzera, argudiatzea eta besteen argudioak ulertzera, eta hartzen dituzten jarreretan hori guztia kontuan izatera bultzatzen dituen espazio bat izatea»). Funtsean, gai baten inguruan iradokitzaila den baliabide batetik abiatu behar dugu, iradokitzaila dena baina mezu zehatzik gabea. Ondoren, problematikoak diren galderak planteatzen ditugu, ahal bada ikasleek beraiek (honetarako galdera filosofikoen inguruko lanketa bat egin ohi dugu

kurtso hasieran, mugak eztabaidagarriak izanik, kritikotasuna garatzen lagun diezaieketen galderak identifikatu eta sortzeko gaitasuna gara dezaten). Behin galderak ditugula, elkarrizketa argudiatu kooperatiboaren momentua da. Uste dut hitzek adierazten dutela jardueraren helburua zein den. Fase honetan, irakaslearen lana da elkarrizketa hori argudiatua eta kooperatiboa dela bermatzea. Lehena, hain zuzen, arrazoiak, adibideak eta kontradibideak, definizioak... eskatuz egingo du; bigarrena, ordea, ikerketa-komunitate izaera eraikiz, inposaketarik gabeko ideien trukeak norberaren ideiak garatzeko duen balioa transmitituz. Milaka gauza esango genituzke lan egiteko modu honen inguruan (metodologia, justifikazioa, gidaritza estrategiak, taldearen kudeaketa...), baina, lehen esan dudan moduan, ez da lekua. Hala ere, gaian sakontzera gonbidatzen zaituztet, noski, irakasleok ere, horren edo antzeko metodologiengaineko formakuntzak behar ditugula aldarrikatu nahi dudalarik ere, benetan ikasleei lagundu nahi badiegu pentsamendu kritikoa eta autonomia garatzen. Horrekin bukatzeko, kritikotasunean zentratu naizela esan nahi dut, horretan zentratu direlako kritikak, baina komeni da presente izatea filosofatzea ez dela hor bukatzen, eta zalantzaren bahetik pasatzen dugun horrek ez bagaitu konbentzitzen, bestelako proposamen edo erantzunak eraikitzea dela helburua, arrazoizkoak eta koherenteak.

### **Zer da pentsamendu kritikoa eta nola landu daiteke?**

Benetako pentsamendu kritikoa, gure garai, leku eta zirkunstantzietatik harago jaiotzen dena, ia existitu ere ez dela egiten argudiatzen du Terek bere azken artikuluan. Agian horrela da, baina nik askatasunarekin gertatzen denaren antza hartzen diot horri: absolutuaren inexistentziak ez ditu mailak ezeztatzen. Pentsamendu kritikoa norberaren ideiekin nahastea, eta bere artikuluetan mahai gainean jartzen dituen beste ardura eta beldur batzuk, oso kontuan hartu beharko genituzkeela uste dut, ordea. Argi dago pentsamendu kritikoa garatzea ez dela honakoa: ikasleei irakasleak, hezkuntza sailak, nik neuk edo okurritzen zaizuen filosoforik postmodernoenak dituen ideiak transmititzea. Dogma batzuk beste batzuekin ordezkatzeko gure burua engainatzea litzateke, eta horri pentsamendu kritikoa deitzea, are gehiago. Baina irakasgaiaren curriculumari so eginez gero, ez doa hortik, ezta gutxiago ere; eta irakasleak baldin bagara elementu arriskutsua, arrisku hori hor egon da, dago eta egongo da beti gai edo hurbilketa filosofikoekin, jorratzen ditugunak jorratzen ditugula, hain zuzen ere. Gurean  $2+2$  ez dira 4, eta denok dugu gure iritzia globalizazioaren edo maitasun erromantikoaren gainean, baina baita Hannah Arendten edo Aristotelesen ideien gainean ere. Haur filosofian, ordea, operatiboak edo instrumentalak deitzen ditugun balio batzuen aldeko apustua egin behar dela uste dugu, elkarrizketa argudiatu kooperatiboaren bidez ideien hartu-emanan ahalbidetzen dutenak, hain zuzen ere: razionaltasuna, kritikotasuna, koherentzia, arreta, adierazpena, errespetua, elkarrizketa bera... Hortik aurrera, lagun diezaiegun gure ikasleei gauzak zalantzan jartzen, euren posizioak ere, noski, eta beraien bidea egiten, pentsamendu kritikoa eta autonomia garatzen, alegia («Arlo honetan jorratzen den gaitasun kritikoa, kontzeptuala eta dialogikoa garatzea funtsezkoa da abstrakzio-gaitasuna, zalantzan jartzeko gaitasuna eta elkarrizketan parte hartzeko trebetasuna garatzeko»).

Hausnarketarako gaitasuna susta daitekeen zerbait dela onartzen badugu, filosofia irakasteaz gain, eta horren aurretik esango nuke nik, filosofatzen irakatsi behar dugu. Horrekiko desioa eta maitasuna transmititzeko ahalegina ere egin behar dugula esango nuke nik, eta hori ez da soilik gure pasioarekin egiten, aurrean duzunaren interesak kontutan hartu gabe zaila baita ikasleek zentzua topatzea filosofiari, edo/eta harekin disfrutatzea. Irakurritako

artikuluetan, pentsamendu kritikoa landu daitekeen zerbait izanik ere, zuzenean lantzea ezinezkoa dela adierazten da. Horrek kanpoan uzten du praktikotasunetik lantzearen aukera, filosofatzeko gaitasuna lantzearena. Dikotomia faltsuaren itxura hartzen diodan argudio horretan, sormenari egotzi ohi diogun magikotasunaren ideia hurbiltzen garela uste dut, eta badakizue Picassok esaten zuela inspirazioak koadroaren aurrean harrapatu behar zaituela. Denak ez dira Picasso izango, baina marrazketa artistikoa hor dago, denak ez dira Wittgenstein izango, baina hizkuntza inklusiboaren inguruko elkarrizketa filosofiko bat egitea komeni zaigu. Filosofia ikasiz, modu erdi magikoan, ikasleek filosofatzen ikasten dutela uste badugu, oso oker gabilta, eta uste dut hor katramilatu garela urteetan. Horrela balitz, filosofia klaseetatik pasatu garen gehienek, eta asko gara, filosofatzeko gai izan beharko genuke (elkarrizketa argudiatu baten arrazoiak eman, besteenak entzun, denenak zalantzan jarri eta definizio zehatzak emateko gai, alegia), eta tamalez uste dut filosofiak ezer gutxi aportatu diela askori, aportatu ahal dienaren aldean. Ikasleentzat hurbilekoak diren gaien inguruan filosofatuz, askoz bideragarriagoa iruditzen zait ikasle asko filosofiara hurbiltzea, gehienetan, ondo eginez gero, filosofiaren gai handiekin topo egingo dugularik. Are gehiago, esango nuke hori guztia elkarrizketa argudiatu kooperatibo gisa planteatzeak Kanten arrazoimen publikoaren kontzeptuak eskatzen duen lurra ereitera hurbiltzen gaituela, irakasgai horren kritikan agertutako beste aldarrikapen bat («Elkarrizketarako, zalantzan jartzeko eta gutxieneko gogoetarako jarrera sendotu nahi da ikasleengan»).

### **Filosofia irakastea eta filosofatzen ikastea**

Curriculum horretan lanean aritu garen filosofia irakasleok, Jakinmin elkarte osatzen dugun irakasleok (zeinen artean Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak ere badauden) eta beste irakasle askok urteak daramatzagu, Haur filosofiaren metodologiaren eskutik, haur, gazte eta helduekin filosofatzen, eta hori da hain zuzen ere aldarrikatu nahi duguna eskola eta institutuetan. Goian aipatutako puntuen eta beste puntu askoren gainean, hausnarketatik eta elkarrizketa argudiatu kooperatiboaren eskutik egin beharreko hurbilketa posiblea eta beharrezkoa dela deritzogu, beraz, galderetatik abiatuta beti, galdera filosofikoen identifikazioa eta sormena jorratuz (kritikotasuna), komunitatean zein bakarka, ideiak argudioen bitartez defendatzeko beharrek lotzeko (autonomia). Ezin dugu filosofia irakatsi aldi berean filosofatzen irakatsi gabe. Eta zer da filosofatzen irakastea, pentsamendu kritikoa eta autonomia, hausnarketarako gaitasuna, garatzea ez bada? Txarto ulertu ez badut, feminismoak pairatu duen kritikotasunaren dogmatizazioa erabili du Terek bere artikuluetakoa batean, eta horri heldu nahi diot nik aldarrikatzen dugun horren adibide bat jartzeko. Egon izan naizen azken institutuan, talde feminista bat dute, eta urte pare batean gelan horrela lan egindako ikasleek euren bilerak eraldatu zituztela heldu zitzaizkien. Orain, baieztapenez jositako gai-ordena batekin hasi beharrean, eztabaidarako galderekin hasten dira. Hori ez bada norberaren pentsamendua zalantzan jartzea... Azken artikuluan Terek oso ondo planteatzen duen beldurrari lotuta, kritikotasuna ez delako ezkertiarra, feminista, antirrazista edo ekologista; kritikotasuna hausnarkorra da soilik.

Pentsamendu dogmatikoa existitzen da, bai, noski existitzen dela; eta, tamalez, batean ez eta ikasgai askotan dugu presente. Pentsamendu kritikoari behar bezala heltzen dion ikasgai bat proposatzen ari bagara, honen presentzia benetan eskasa delako da; baita, eta hor guk egin behar dugu autokritika, filosofiarekin lotutako ikasgaietan ere. Askotan, horrek ematen dizkigun aukerak gure pulpitutik norberaren ideiak botatzeko erabili dugulako, ikasleei

beraienak garatzen lagundu beharrean. Hobbesen eta Rousseuren ideiak azal ditzaket; baina horren ostean nire iritziak bota beharrean, ez al da interesgarriagoa ikasleei, euren interesguneetatik abiatuta, gizakiaren ontasun edo gaizkitasunaz hausnartzen laguntzea? Eta zergatik Hobbes eta Rousseau ezagutzeko adinean ez dauden edo euren izenak entzuteko beharrizana ez duten ikasleei hausnarketa gai hori ukatu? Filosofiak berezko dituen gai batzuk daude, duda barik. Are gehiago, eta lehen esan bezala, esango nuke gai horiekin egiten dugula topo azkar batean 'filosofikoak ez diren' gaietatik tiraka. Baina posible da hurbilketa filosofikoa edozein gairen inguruan egitea ere. Tortilla kipularekin edo kipularik gabe? Zer da kirol bat? Zertarako erabili behar ditugu eskoletako patioak?... Ez dezagun gal gauzak zalantzan jartzen eta argudiatzen ikasteko aukera, eta besteekin kooperazioan bada, elkarbizitzarako gaitasuna garatzekoa, aldi berean.

## **JAKIN**

Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
**www.jakin.eus**